DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko apirilaren 11n izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, *(1.go,2.,5.,6.,8.,9. Eta 10. puntuak, gehiengoz eta 3., 4., eta 7. puntuak aho batez)*:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 11 de abril de 2024, aprobó, *(el 1º, 2º,5º ,6º ,8º ,9º y 10º puntos, por mayoría y los puntos 3º,4º y 7º por unanimidad)*, la siguiente Declaración Institucional:

**Erakunde Adierazpen bateratua, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, Donostia Palestina Herri Ekimeneko kideen kezka eta haserrea Palestinako egoerari buruzkoa.**

**Declaración Institucional conjunta presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, sobre la preocupación e indignación de las personas que forman parte de la Iniciativa Popular Donostia Palestina por la situación de Palestina.**

*"Donostia Palestina Herri Ekimena osatzen dugun pertsonak, Palestinaren egoerari kezkaz eta suminduraz begiratzen diogun norbanakoak gara, herritarrak. Bat egitera eraman gaituen kezka eta amorru hori herritar gehienek partekatzen dutela uste dugu.*

*"Las personas que conformamos la iniciativa ciudadana Donostia Palestina somos particulares, ciudadanos y ciudadanas, que miramos la situación de Palestina con preocupación e indignación. Creemos que esta preocupación y esta rabia, que es lo que nos ha llevado a unirnos, es compartida por la mayoría de la ciudadanía.*

*Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, ezinbestekoa iriztendiogu Donostiako Udalak herritar gehienon kezka eta amorru hori bere egin, eta egunez egun Israelgo Estatua egiten ari den nazioarteko zuzenbidearen urratze larria salatu dezan.*

*Consideramos imprescindible que el Ayuntamiento de San Sebastián, como institución más cercana a la ciudadanía, haga suya esta preocupación y esta rabia que siente la mayoría de la ciudadanía y denuncie la grave vulneración del derecho internacional que día a día está cometiendo el Estado de Israel.*

*Joan den Urriaren 7tik hona, Israelek 1.9 milioi pertsona desplazatu eragin ditu (herritarren % 90a), bonbetatik ihes eginez leku seguru batera iritsi ezinik, Israelgo Estatuak lurralde palestinarrean ezartzen dituen mugak blokeatu, itxi eta kontrolatzeagatik, Gazako eraikin guztien %56a suntsitu ditu, ospitale gehienak erabilgaitz utzi ditu, hornidura elektrikorik gabe, ur garbirik gabe, botikarik gabe…horrek milaka pertsonen heriotza ekarriz. Anbulantziak ere bonbardatu egiten dituzte; 250 osasun-profesional baino gehiago, 130 kazetari baino gehiago eta NBEko*

*Desde el pasado 7 de octubre, Israel ha provocado el desplazamiento de 1,9 millones de personas (el 90 % de la población), que han huido de las bombas sin poder llegar a un lugar seguro, por el bloqueo, el cierre y el control de las fronteras que el Estado israelí ha impuesto en territorio palestino. Además, ha destruido el 56 % del total de edificios de Gaza, ha dejado la mayoría de los hospitales inutilizables, sin suministro eléctrico, sin agua limpia, sin medicamentos... lo que ha supuesto la muerte de miles de personas. Asimismo, ha bombardeado ambulancias y asesinado a más de 250 profesionales*

10740n XVII

*162 langile hil ditu.*

*sanitarios, a más de 130 periodistas y a 162 trabajadores y trabajadoras de la ONU.*

*Urtarriletik hona, sartzen ari zen laguntza humanitario urria izugarri murriztu da, eta horren ondorioz, gosez hiltzen ari dira, batez ere haurrak: "Munduko gose-maila zorrotzenetan dauden 5 pertsonatik 4 Gazan daude"(UNRWA); "300.000 pertsona gosez hiltzen ari dira Gazako iparraldean" (UNRWA).*

*Desde enero, la escasa ayuda humanitaria que entraba se ha reducido de manera drástica, lo que está provocando que el pueblo palestino, sobre todo niños y niñas, se estén muriendo de hambre: "4 de cada 5 personas que se encuentran en los niveles más drásticos de hambre en el mundo, están en Gaza" (UNRWA); "300.000 personas en el norte de Gaza se mueren de hambre" (UNRWA).*

*Israelek 17.000 haur umezurtz utzi ditu. Gazan, eraildako 32.000 gizon, emakume eta haur inguru zenbatu dituzte, eta horiei, hondakinen azpian dauden 8.000 gorpu gehitu behar zaizkie; 13.000 haur erail dituzte; 14.000tik gora, desagertutako haurrak zenbatuta. Zisjordanian, israeldar soldadu edota kolonoek 400 palestinar hil dituzte,horietatik 100 haurrak (UNRWA) eta milaka espetxeratu eta torturatuak, egunero erakusten dizkigutenak eta zigorgabetasun osoz. "Israelen bonbardaketek aurrekaririk gabeko egoera ankerra eragin dute."Lynn Hastings, Nazio Batuen koordinatzaile humanitarioa lurralde palestinar okupatuetan.*

*Israel ha dejado huérfanos a 17.000 niños y niñas. En Gaza, se contabilizan unas 32.000 personas asesinadas, entre hombres, mujeres, niños y niñas, a las que hay que añadir los 8.000 cadáveres que yacen bajo los escombros; se ha asesinado a 13.000 niños y niñas, más de 14.000, si contamos a los niños y niñas desaparecidos. En Cisjordania, soldados y/o colonos israelíes han asesinado a 400 personas palestinas, de las cuales 100 son niños y niñas (UNRWA), y han encarcelado y torturado a miles de personas, con total impunidad, tal y como se nos muestra todos los días. "Los bombardeos israelíes provocan una situación inhumana sin precedentes". Lynn Hastings, coordinador humanitario de Naciones Unidas en los territorios palestinos ocupados.*

*Israelgo Estatuak Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindakoa inoiz ikusi ez den larritasun handiko erasoa da, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, egonkortasuna eta segurtasun globala arriskuan jartzen dituena.*

*El ataque perpetrado por el Estado de Israel contra la población civil palestina es de una gravedad nunca antes vista y supone una flagrante vulneración del derecho internacional, que pone en peligro la estabilidad y la seguridad global.*

## *ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalak irmotasun osoz arbuiatzen ditu Israelgo EstatuakGazako zerrendan zein Palestinako beste lurraldeetan egiten ari denekintza militarrak, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak.Justifikaziorik gabeko erasoa da, eta herrialdearen segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu.*

*2. Donostiako Udalak erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, eta Israelgo armada Palestinatik erabat erretiratzeko. Palestinaren subiranotasunerako eskubide osoa eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu.*

*3. Donostiako Udalak Palestinari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua*

## *DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*1. El Ayuntamiento de San Sebastián rechaza firmemente las acciones militares que el Estado israelí está llevando a cabo tanto en la franja de Gaza como en otros territorios de Palestina y que suponen una grave vulneración del derecho internacional. Es un ataque injustificado que socava la seguridad y la estabilidad del país.*

*2. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la paralización inmediata de los ataques y a la retirada total del ejército israelí de Palestina. Protege y respeta el pleno derecho a la soberanía y la integridad territorial de Palestina.*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastián muestra su total solidaridad y aprecio tanto a Palestina como a su*

*adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik.*

*4. Donostiako Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko Palestinari eta Palestinako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Israelgo Estatuari gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.*

*5. Donostiako Udalak Europar Batasunari, Espainiako Estatuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko, eraso militar horretatik erator daitezkeen errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen du harrera espazio bat, iragaitzazko migratzaileei zuzendua, behar izanez gero Palestinatik iristen diren errefuxiatu horiei harrera emateko. Halaber, konpromisoa hartzen du harrera duina bermatuko duten espazioak eskaintzeko haur palestinarrei.*

*6. Donostiako Udalak irmo eskatzen dio Israelgo Estatuari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.*

*7. Donostiako Udalak Europako Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko*

*8. Donostiako Udalak Larrialdi Humanitariorako dirulaguntza bat onartuko du, tokian bertan lanean ari den erakunderen batentzat Palestinara modu seguruan helduko dela bermatu daitekeen unean.*

*9. Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du israeldar empresa, elkarte edo eragileekin harreman komertzial eta instituzional guztiak bertan behera uzteko, presio neurri bezala, Israelgo Estatuak Gazako zerrendaren zein Palestinako beste eremuen aurkako erasoak bertan behera utzi ditzan, okupazioa amaitu dezan, apartheid sistema eraitsi dezan, eta errefuxiatu palestinarren itzulera eskubidea berma dezan.*

*pueblo. Lamenta la pérdida de vidas y manifiesta un profundo pesar por las víctimas y por el sufrimiento innecesario de la ciudadanía.*

*4. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Unión Europea a que, en coordinación con toda la comunidad internacional, preste a Palestina y al pueblo palestino toda la ayuda financiera y humanitaria que resulte necesaria. Insta a que se intensifiquen los esfuerzos en la respuesta humanitaria de emergencia. Recuerda al Estado israelí la obligación de respetar el derecho internacional humanitario.*

*5. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Unión Europea, al Estado español y al Gobierno Vasco a que se organicen lo antes posible para acoger en las mejores condiciones posibles a las personas refugiadas que este ataque militar pueda provocar. Y pone a disposición de las autoridades competentes un espacio de acogida, dirigido a migrantes en tránsito, para acoger, en su caso, a las personas refugiadas que puedan llegar desde Palestina. Asimismo, se compromete a ofrecer a las niñas y niños palestinos espacios que garanticen una acogida digna.*

*6. El Ayuntamiento de San Sebastián insta firmemente al Estado israelí a respetar la legislación internacional, a dejar las armas y a volver a la vía diplomática.*

*7. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Unión Europea a realizar un mayor esfuerzo para impulsar la desescalada mediante gestiones diplomáticas y para mantener la paz.*

*8. El Ayuntamiento de San Sebastián aprobará, en el momento en que pueda garantizarse el acceso seguro a Palestina, la concesión de una subvención de emergencia humanitaria a alguna organización que opere en el territorio.*

*9. El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a suspender todas las relaciones comerciales e institucionales con empresas, asociaciones o agentes israelíes como medida de presión para que el Estado de Israel cese sus ataques contra la franja de Gaza y otras zonas de Palestina, ponga fin a su ocupación, derribe el sistema de apartheid y garantice el derecho de retorno de las personas refugiadas palestinas.*

*10. Donostiako Udalak Europako Batasunari, Nazio Batuen Erakundeari eta bestelako nazioarteko eragileei Israeli laguntza humanitarioari sarbidea emateko mugak berehala zabal ditzan exijitzeko eskatuko die".============================*

*10. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Unión Europea, a la Organización de las Naciones Unidas y a otros agentes internacionales a que exijan a Israel que abra las fronteras de forma inmediata para dar acceso a la ayuda humanitaria".*
*================================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**